


## ❶ San Roke - Karakate

Partimos desde la ermita de San Roke por la carretera asfaltada, hasta llegar al cruce del caserío Agarre, donde tomaremos el camino cementado de la derecha (455 m.), para dirigirnos hacia el caserío Agarre Txiki.

Abandonando este camino después de pasar el caserío Agarre Txiki, tomaremos la pista ascendente situada a nuestra izquierda. Comenzamos el ascenso hasta adentrarnos en un pinar (1000 m.). En este bosque nos encontramos un cruce en el que optaremos por seguir hacia la izquierda, atravesando una puerta (1750 m.).



**SAN ROKE**

La ermita de San Roke está situada en el barrio de Azkue, al pie del camino que antiguamente se dirigía a Soraluze. Hace siglos, la ermita estuvo bajo la advocación de San Vicente.

Se dice que cuando entre los años 1597 y 1599 una epidemia de peste bubónica afectó a Gipuzkoa y a una gran parte del país, el pueblo de Elgoibar se encomendó a San Roke, abogado contra la peste. La epidemia no llegó a esta población y, en agradecimiento, la ermita hasta entonces bajo la advocación de San Vicente pasó a estar bajo la de San Roke.

Antes de llegar al caserío Iturbe tomaremos la senda que, situada a la izquierda, discurre por el borde de un pinar (2500 m.). Tras varios cruces, todos ellos perfectamente señalizados, pasamos ante una fuente (4362 m.). Desde aquí a la cima de Karakate nos separan apenas 300 metros (4654 m.).

## ❷ Karakate - Irukurutzeta

En adelante, hasta Irukurutzeta, caminaremos por el tramo común con el PR-GI 109.

Al llegar a un cruce en el que hay una poza (6808 m.), optaremos por el camino de la derecha, ya que el de la izquierda conduce a Sallobente-Ermuaran y a la fuente de Kortazabal o Atxolin. Frente a nosotros tenemos la cumbre de Atxolin.





Los dólmenes y túmulos son monumentos megalíticos de carácter funerario, y su datación cronológica se sitúa en el periodo final del Neolítico y la Edad de Bronce.

Ambos están relacionados con la cultura pastoril de aquellos tiempos. Por suerte, todavía hoy, aunque de forma casi simbólica, es posible contemplar en este cordal, pequeños rebaños de ovejas y caballos pastando tal y como lo hacían hace más de 4000 años.

Caminamos por el sendero que discurre a la derecha de su cumbre. Pasado ya Atxolin, llegamos a un cruce. Nosotros continuamos de frente. A la izquierda y arriba se encuentra la cruz de Pagobedeinkatu. En la parte posterior de la cruz hay un camino por donde es posible ir a Sallobente-Ermuaran y Azkarate. Seguimos de frente, hasta tomar el camino que asciende por el hayedo (8382 m.).

Una vez pasado el hayedo continuamos por un sendero despejado. A 200 metros hay un pequeño sendero hacia la izquierda que se dirige a la fuente de Mandoiturri. Continuando de frente por el sendero principal llegaremos a Irukurutzeta.




Vista panorámica desde el alto de Azkarate. Al fondo, el cordal por cuyas laderas va a discurrir buena parte de nuestro recorrido. De izquierda a derecha, hasta el centro de la imagen, podemos ver las cumbres de Urko, Akondia, Kalamua y Morkaiko.

En el centro, el barrio de Aiastia (San Miguel) y tras él, las cumbres de Urregarai y Bedartzandi en Aulestia. Del centro a la derecha, Mendibeltzu, Bigoingogana y las estribaciones del macizo de Arno.

## ❸ Irukurutzeta - Azkarate

Antes de llegar a Irukurutzeta, pasamos el pinar y descendemos hacia Azkarate por el camino de la izquierda, que marca los límites entre Elgoibar y Azkoitia (8975 m.).

Durante el descenso encontraremos varios cruces señalizados. Nosotros continuaremos guiados por las señales referentes a nuestro recorrido, hasta llegar a las proximidades de Sargoate, donde veremos una pradera con una cruz, a nuestra derecha (11.967 m.).

Siempre en descenso, encontraremos primeramente a mano izquierda el camino que se dirige a la fuente de Sargoate, y después pasaremos junto al caserío Otzurteaga (11.967 m.). Tras varios cruces llegaremos al caserío Kortaberritxo y desde aquí, a pocos metros, al alto de Azkarate (12.975 m.).

## ❹ Azkarate - Altzola

Tras atravesar la carretera, caminaremos en dirección a Madariaga. A los 110 m. dejamos la carretera, para tomar un camino de tierra situado a la izquierda. Después de ascender por una fuerte pendiente, tomaremos el camino que se adentra en el pinar. Ignorando las pistas situadas a nuestra derecha, proseguiremos siempre de frente.

Tras atravesar una zona de abetos llegamos a la poza de Urnobitza (14.650 m.). Rodeando la poza, continuamos de frente. En nuestro recorrido, ahora entre bellísimas vistas, encontraremos varios cruces, pero de nuevo proseguiremos de frente hasta llegar a los prados de Mausitxa (16.050 m.).

Después de atravesar la pista de cemento (16.546 m.), caminaremos por la derecha del cierre, dejando la txabola a nuestra derecha. Tras varios cierres y cruces, las señales nos llevarán hasta la sociedad Etun (18.042 m.). Desde aquí, hasta el caserío Altzola Berazeta, caminaremos durante un largo tramo junto a la conducción del gas.

Tomaremos el camino de gravilla junto al caserío que se dirige a Mendaro. A 300 m. abandonaremos la pista, para tomar otra de tierra hacia la izquierda. Descendiendo, llegaremos a las vías del tren, y tras cruzarlas, a la carretera N-634, en el barrio de Altzola (20.500 m.).



Torre medieval de Andonaegi.

Aunque hoy nos cueste creerlo, hace siglos, Altzola fue un concurrido puerto comercial fluvial. Desde aquí, a bordo de embarcaciones planas como gabarras y alas, partían hacia el puerto de Deba diversos productos, entre ellos la lana que procedente de Castilla era posteriormente transportada a Inglaterra y Flandes.

Testigos de lo que fueron las instalaciones de sus muelles, como la lonja y la rentería, son los edificios Albizkua y Aurretxe. Altzola, junto con Bedua en el Urola, fueron los puertos fluviales más importantes en el transporte y comercio de mercancías de Gipuzkoa.

## ❺ Altzola – Aiastia

Atravesamos el puente sobre el río Deba, pasando posteriormente entre los edificios del balneario y, más tarde, bajo el túnel que salva la autopista A-8. Comenzamos el ascenso por el camino situado a la derecha. Siguiendo las marcas y señales de los cruces, llegaremos al caserío Bigoin (23.735 m.), situado a menos de 3 km. del núcleo de Altzola.



**ERMITA DE SAN MIGUEL ARCÁNGEL DE AIASTIA**

Los orígenes de la ermita de San Miguel de Aiastia nos desvelan interesantes datos histórico-etnográficos sobre el modo de vida rural en el momento en que fue fundada. Comenzó a construirse en 1846 y su coste ascendió a 3.385 reales y 29 maravedís.

La obra fue financiada con el trigo de los vecinos del barrio. Tras solicitar éstos que se celebrase misa en élla todos los domingos, se comprometieron a pagar anualmente entre todos 26 fanegas de trigo para tal fin.

Antiguamente, el sacristán tañía las campanas al amanecer, al mediodía, al atardecer, en caso de muerte de algún vecino o ante la proximidad de tormenta. El pago por este servicio, también en grano, consistía en 3 kg. de trigo y 3 kg. de maíz al año por cada uno de los caseríos.



Las laderas de Kalamua nos ofrecen una magnífica vista panorámica del barrio de Idotorbe con el monte Moru, antiguo castro de la Edad del Hierro. Al fondo, el cordal de Karakate-Irukurutzeta.

Aquí tomaremos la pista cementada que nos llevará al caserío Ziarda, y más tarde, tras varios cruces todos ellos señalizados, hasta el caserío Berdezkunde (25.560 m.), situado en las proximidades de la carretera Elgoibar-Markina.

Tras atravesarla, accedemos al barrio de Aiastia, también conocido como de San Miguel (25.735 m.). Pasando ante la iglesia y el frontón, seguiremos por el camino de cemento que asciende hacia los caseríos situados en las faldas de Morkaiko y Kalamua.

## ❻ Aiastia – Herriko plaza

Dejamos a nuestra izquierda el caserío Mugertza (26.500 m.) y seguimos ascendiendo, pasando ante el caserío Borragen (26.735 m.) hasta llegar al caserío Oa-Txiki. Sobrepasado este caserío dejaremos el camino de cemento para, tras atravesar una puerta, continuar por una pista de montaña.

Tras pasar una segunda puerta llegaremos a una explanada, donde se nos unirán el GR-121 (Vuelta a Gipuzkoa ) y el PR-Gi 122. A 100 metros a la izquierda de este cruce, se encuentra también la fuente de Hiruiturri.

Desde aquí seguiremos por una pista llana hasta el cruce de Aubixa (28.000 m.), y luego, guiados por las señales, hasta el área recreativa de San Pedro-Idotorbe (30.850 m.). Frente a la bolera, tomaremos el camino de cemento que se dirige hacia el caserío Irunabe, y más tarde el que parte a nuestra derecha, junto al arroyo (31.600 m.). Tras descender por el pinar, pasaremos junto a los restos de un antiguo molino (32.450 m.).



**SAN PEDRO DE IDOTORBE**

Las primeras referencias escritas sobre San Pedro de Idotorbe están relacionadas con la aparición, en 1442, de una imagen de la Virgen en Arrate.

El documento, situado al parecer en los archivos vaticanos y fechado en Florencia el 14 de agosto de 1442, relata cómo una muchacha del valle de Mendaro, mientras caminaba al borde de un profundo precipicio, encontró una imagen de la Virgen. Continúa diciendo que dicho acontecimiento hizo que una gran multitud acudiera a aquel lugar de difícil acceso, y que para evitar escándalos y males mayores, la imagen fue trasladada a la iglesia de San Pedro de “Itorbe”, donde con mayor facilidad y seguridad pudieran acceder los fieles.

Después de ascender por la pendiente, pronto nos encontraremos en las laderas de Arrate. Desde aquí, tras atravesar varios cierres, las señales nos harán descender por la vaguada de Saturixo, entre los montes Arrate y Moru, hasta llegar prácticamente a la altura de la N-634 (34.710 m.). A partir de aquí el recorrido, totalmente llano, discurre paralelo a la carretera.

Tras pasar ante el caserío Aitzbizkar, llegaremos a las casas de Sigma y posteriormente a la plaza del pueblo (35.800 m.).



## ❶ San Roke - Karakate

San Roke ermitatik abiatuko gara asfaltatutako errepidean zehar, Agarre baserriko bidegurutzeraino. Bidegurutze horretan, eskuineko zementuzko bidea hartuko dugu (455 m), Agarre Txiki baserrira joateko.

Agarre Txiki baserriaren aldamenetik igaro ondoren, ezkerraldeko mendi-bidea hartuko dugu; hots, gorantz doana. Igotzen hasiko gara, pinudi batean sartu arte (1.000 m). Baso horretan, bidegurutze bat aurkituko dugu eta, horretan, ezkerraldetik jo eta ate bat zeharkatuko dugu (1.750 m).



**SAN ROKE**

San Roke ermita Azkue auzoan dago, garai batean Soraluzera zihoan bidearen ondo-ondoan. Duela zenbait mende, San Bizenteren izenpekoa zen ermita.

1597 eta 1599 artean Gipuzkoan eta Euskadiko leku gehienetan izurri bubonikoa agertu zenean, elgoibartarrek San Rokeri gomendatu omen zioten beren burua, izurriaren aurkako defendatzaileari, alegia. Izurritea ez zen Elgoibarra iritsi, eta, hori eskertzeko, San Rokeren izenpeko egin zuten ordura arte San Bizenteren izenpekoa izan zen ermita.

Iturbe baserrira iritsi baino lehen, ezkerraldean, pinudi baten ertzetik igarotzen den bidezidorra hartuko dugu (2.500 m). Oso ondo seinaleztatutako zenbait bidegurutzetatik igaro eta gero, iturri bateraino iritsiko gara (4.362 m). Iturri horretatik, 300 metro baino gutxiago falta dira Karakateren gailurrera iristeko (4.654 m).

## ❷ Karakate - Irukurutzeta

Karakatetik aurrera eta Irukurutzetaraino, PR-GI 109ren leku beretik ibiliko gara.

Putzu baten ondoko bidegurutzera iristean (6.808 m), eskuineko bidea hartuko dugu; izan ere, ezkerreko bidea Sallobente-Ermuaranera eta Kortazabalgo edo Atxolingo iturrira doa. Gure aurrean, Atxolinen gailurra ikusiko dugu.





Trikuharriak eta tumuluak hilobi-monumentu megalitikoak dira, Neolitoaren amaieraren eta Brontze Aroaren artekoak.

Biak garai hartako artzain-kulturarekin lotuta daude. Zorionez, gaur egun ere, nahiz eta ia sinboli-koki, artalde eta zaldi-talde txikiak ikus daitezke kordal horretan bazka-tzen, duela 4.000 urte baino gehiago bezala.

Gailurraren eskuinaldetik doan bidezidorra hartuko dugu. Atxolin igaro ondoren, bidegurutze batera iritsiko gara. Aurrerantz jarraitu behar dugu. Ezkerraldean eta goian, Pagobedeinkatuko gurutzea dago. Gurutzearen atzealdean, Sallobente-Ermuaranera eta Azkaratera joateko bide bat dago. Aurrerantz jarraituko dugu, pagadian gora doan bidea hartu arte (8.382 m).

Behin pagadia igarota, bidezidor garbi batetik jarraituko dugu. 200 metrora, bidezidor txiki bat ikusiko dugu ezkerraldean; bide hori Mandoiturriko iturrira doa. Aurrerantz jarraituko dugu, bidezidor nagusitik, eta Irukurutzetara iritsiko gara.




Ikuspegi panoramikoa, Azkarateren gailurretik. Atzean, gure ibilbideak jarraituko duen kordalaren hegalak. Ezkerraldetik eskuinaldera, irudiaren erdiraino, Urko, Akondia, Kalamua eta Morkaiko mendien gailurrak ikus ditzakegu.

Erdian, Aiastia auzoa (San Miguel) eta, horren atzean, Urregarai eta Bedartzandi mendien gailurrak, Aulestin. Erdialdetik eskuinaldera, Mendibeltzu, Bigoingogana eta Arno inguruko mendiak.

## ❸ Irukurutzeta - Azkarate

Irukurutzetara heldu aurretik, pinudia utziko dugu atzean, eta Azkaraterantz jaitsiko gara, ezkerreko bidetik (8.975 m); alegia, Elgoibar eta Azkoitia arteko muga adierazten duen bidetik.

Bidetik behera goazenean, ondo seinaleztatutako zenbait bidegurutzetatik igaroko gara. Gure ibilbideari dagozkion seinaleei jarraituko diegu, Sargoate ingurura iritsi arte (11.967 m); han, eskuinaldean, belardi bat ikusiko dugu, eta, bertan, gurutze bat.

Beti behera goazela, lehendabizi, Sargoateko iturrira doan bidea aurkituko dugu ezkerraldean, eta, ondoren, Otzurteaga baserritik igaroko gara (11.967 m). Zenbait bidegurutze igaro eta gero, Kortaberritxo baserrira helduko gara; handik metro gutxira, Azkarateren gailurra dago (12.975 m).

## ❹ Azkarate - Altzola

Errepidea zeharkatu ondoren, Madariagara bidean ibiliko gara. Handik 110 m-ra, errepidetik irtengo gara, eta ezkerraldeko lurrezko bidea hartuko dugu. Aldapa handi batean gora ibili ondoren, pinudian sartzen den bidea hartuko dugu. Aurrerantz jarraituko dugu, eskuinaldeko mendi-bideak atzean utzita.

Izeidi bat zeharkatu ondoren, Urnobitzako putzura iritsiko gara (14.650 m). Putzuaren inguruan ibili eta aurrera jarraituko dugu. Hortik aurrera, ikuspegi ederren artean igaroko da gure ibilbidea. Zenbait bidegurutze aurkituko ditugu, baina aurrerantz jarraituko dugu beti, Mausitxako belardietaraino iritsi arte (16.050 m).

Zementuzko mendi-bidea zeharkatu eta gero (16.546 m), itxituraren eskuinaldetik ibiliko gara, txabola gure eskuinaldean utzita. Zenbait itxituratatik eta bidegurutzetatik igaro ondoren, seinaleek Etun elkarteraino eramango zaituzte (18.042 m). Handik Altzola Berazeta baserriraino, tarte luzean ibiliko gara gas-hodiaren ondotik.

Baserriaren ondoko hartxintxarrezko bidea hartuko dugu, Mendarora doana. Handik 300 m-ra, mendi-bidea utzi eta ezkerralde-rantz doan lurrezko mendi-bidea hartuko dugu. Behera egingo dugu, eta trenbideetara iritsiko gara; trenbideak zeharkatu ondoren, N-634 errepidera helduko gara, Altzola auzoan (20.500 m).



Andonaegiko Erdi Aroko dorrea.

Gaur egun, kosta egiten zaigu sinistea, baina, duela zenbait mende, Altzola ibaiko merkataritza-portu aktiboa izan zen. Portu horretatik, ontzi lauetan –esaterako, gabarra eta hegaletan–, hainbat produktu eramaten ziren Debako portura; besteak beste, Gaztelako artilea, Ingalaterrara eta Flandesera garraiatzeko.

Ibaiko portu horretako kaietako instalazioen –adibidez, lonjaren eta errenteriaren– erakusgarri, Albizkua eta Aurretxe eraikinak dira. Altzola eta Bedua (Urola ibaian) Gipuzkoako ibaiko porturik garrantzitsuenak izan ziren, merkantzien garraioari eta merkataritzari dagokienez.

## ❺ Altzola – Aiastia

Deba ibaiaren gaineko zubia zeharkatuko dugu; ondoren, bainuetxeko eraikinen artean igaroko gara, eta, geroago, A-8 autobidearen azpiko tuneletik. Igotzen hasiko gara, eskuinaldeko bidean gora. Bidegurutzeetan marka eta seinaleei jarraituta, Bigoin baserrira iritsiko gara (23.735 m); Altzolatik 3 km-ra dago.



**AIASTIAKO SAN MIGUEL ARKANJELUAREN ERMITA**

Aiastiako San Miguel ermitaren jatorriak fundazio-garaiko landa-bizimoduari buruzko datu historiko eta etnografiko interesgarriak jartzen ditu agerian. 1846an hasi ziren eraikitzen, eta 3.385 erreal eta 29 marabediko kostua izan zuen.

Auzoko biztanleen gariarekin ordaindu zen obra. Ermita horretan meza igandero emateko eskatu zuten auzota-rrek, eta, horretarako, urtean behin denon artean 26 anega gari ordaintzeko konpro-misoa hartu zuten.

Antzina, sakristauak egunsentian, eguerdian, ilunsentian, auzokoren bat hiltzen zenean eta ekaitza zetorrenean jotzen zituen kanpaiak. Zerbitzu horren trukean, gariarekin ordaintzen zuten auzotarrek; hain zuzen, baserri bakoitzak 3 kg gari eta 3 kg arto ordaintzen zituen urtean.



Kalamuaren hegaletatik, Idotorbe auzoaren eta Moru mendiko Burdin Aroko kastro zaharraren ikuspegi ederrak daude. Atzean, Karakateren eta Irukurutzetaren arteko kordala ikus daiteke.

Baserri horretan, zementuzko mendi-bidea hartuko dugu. Bide horrek Ziarda baserrira eramango gaitu. Baserria igarota, ondo seinaleztatutako zenbait bidegurutzeren ondoren, Berdezkunde baserriraino iritsiko gara (25.560 m). Baserri hori Elgoibar eta Markina arteko errepidetik gertu dago.

Errepidea zeharkatu eta Aiastia auzora iritsiko gara (25.735 m); auzo horri San Migel auzoa ere deitzen zaio. Elizaren eta frontoiaren ondotik igaroko gara, eta Morkaiko eta Kalamua mendien hegaletan dauden baserrietarantz igotzen den zementuzko bidean aurrera egingo dugu.

## ❻ Aiastia – Herriko plaza

Mugertza baserria ezkerraldean utzita (26.500 m), gora egiten jarraituko dugu, eta Borragen baserriaren ondoan igaroko gara (26.735 m), Oa-Txiki baserriraino. Baserri hori atzean utzita, zementuzko bidetik irtengo gara, eta, ate bat zeharkatu eta gero, mendi-bide batean zehar jarraituko dugu.

Beste ate batetik igaro ondoren, zelaigune batera iritsiko gara. Han, GR-121 (Gipuzkoako bira) eta PR-GI 122 bideekin elkartuko da gure mendi-bidea. Ezkerraldean, bidegurutze horretatik 100 metrora, Hiruiturriko iturria dago.

Handik, mendi-bide lau batean aurrera egingo dugu, Aubixako bidegurutzeraino (28.000 m). Ondoren, seinaleei jarraituta, San Pedro-Idotorbeko atsedenlekura iritsiko gara (30.850 m). Bolatokiaren aurrean, Irunabe baserria doan zementuzko bidea hartuko dugu, eta, geroago, errekaren ondoan, gure eskuinaldean hasten dena (31.600 m). Pinudian behera egin ondoren, errota zahar baten hondarren ondotik igaroko gara (32.450 m).



**IDOTORBEKO SAN PEDRO ELIZA**

Idotorbeko San Pedro elizari buruzko idatzizko lehen erreferentziak Andre Mariaren irudi bat Arraten agertzeari dagozkio.

Dirudienez, dokumentua Vatikanoko artxiboetan dago eta Florentzian idatzi zen, 1442ko abuztuaren 14an. Dokumentuaren arabera, Mendaroko haraneko neskatila batek, sakonera handiko amildegi baten ertzean ibiltzen ari zela, Andre Mariaren irudi bat aurkitu zuen. Gertakari horrek jende-mordoa erakarri zuen leku helezin hartara, eta, eskandalurik eta zorigaitz gehiagorik izan ez zedin, Itorbeko San Pedro elizara eraman zuten irudia. Elizan, fededunek irudia errazago eta seguruago ikusteko aukera izan zuten.

Aldapan gora egiten hasita, Arrateren hegaletara iritsiko gara laster. Handik, zenbait itxitura zeharkatu ondoren, seinaleek Saturixoko ibarrean behera eramango gaituzte, Arrate eta Moru mendien artean, ia-ia N-634 errepidearen parera iritsi arte (34.710 m). Hortik aurrera, ibilbidea erabat laua da, eta errepidearekiko paraleloa.

Aitzbizkar baserriaren aurretik igaro ondoren, Sigmako etxeetara iritsiko gara, eta, ondoren, herriko plazara (35.800 m).




Argitaratzailea/Edita: Elgoibarko Udala, Debemen, Debegesa. Testuak/Textos: Galemys, Kaioa a.s.p.
Egilea/Realización: Kaioa a.s.p.